

BOTA BERTSOA


ASMAKIZUNAK
IÑAKI GURRUTXAGA

DOINUA: OMENDU NAHIAN ETORRI GERA

RING-RING-RING-RING-RING! JOKA HASI DA
 IRATZARGAILUA BERRIZ! (BIS)
 NAHIAGO NUKE TRAMANKULU HAU
 INOIZ ASMATU EZ BALITZ! (BIS)

ESATEN DUTE LEVI HUTCHINSEK
 ASMATU ZUELA BERA... (BIS)
 ASMAKIZUNA ONA DA BAINA
 LO EGITEA HOBE DA! (BIS)

ONDOREN JAIKI TA BIZKOR-BIZKOR
 BIZIKLETAZ ESKOLARA (BIS)
 GURPILEI ETA PEDALEI ESKER
 GARAIZ IRITSIKO GARA. (BIS)

GURPILA NONBAIT ASMATU ZUTEN
 MESOPOTAMIAN EDO... (BIS)
 NOLA MUGITU NIRE GURPILAK
 LAUKIAK IZANEZ GERO? (BIS)



ASMAKIZUNAK EZ DIRA GUTXI
GURE EGUNEROKOAN... (BIS)
MUGITU ETA GUK ERE ZERBAIT
ASMA DEZAGUN GAURKOAN! (BIS)